

Txakurrak parkean, haurrak etxean

**Oihane Larretxea
de la Granja**

Estatu espainiarrean 13 milioi maskota daude erregistratuta, eta 15 urtetik beherako 7 milioi adin txikiko. Animaliek ia bikoiztu egiten dute pertsonen zifra. Porzentaajeak sortzen dizkidan galderez eta kezkez harago, zera gogorarazi nahiko nuke: lehenengoak egunean bizpahiru bider ateratzen dira haize pixka bat hartzera eta behar batzuk asetzerara. Beren jabeekin, jakina. Bigarrenak, berriz, 21 egun daramatzate lau hormaren artean.

Eta ez naiz eskatzen ari txakurren jabe-ei kalera irteteko eskubidea ukatu behar zaienik. Baizik eta bizi dugun egoera salbuespenezkoa dela ulertuta, eta horrek,

halabeharrez, atxikita salbuespenezko neurriak ekartzen dituela asunituta, malgutasun jakin bat egon daitekeela. Egun gure txikiekin ateratzeko aukera bakarra supermerkatu joatea da esnea edo fruta erostera (?!). Ez al dira espazio horiek arriskutsuak etxe alboko plaza eta kale kantoia baino?

Pedro Sanchezek krisiari begira emandako lehen hitzaldietako batean, hainbatetan aipatu zituen maskotak; haurrak behin ere ez. Psikiatra, hezitzaile eta pediatrik etxean mantentzeak beren ongizatean eta osasunean izan ditzakeen arriskuez ohartarazi dute, bizitzaren lehen etapa honek berebiziko garrantzia

baitu. Neurriak, gainera, oso modu injustuan eragiten du, ez baita berdina landa eremuan bizi, balkoi batekin konformatu behar izatea edo egunak patiora baino leihoa ez duen pisu batean igarotzea.

Sukalde pareko parketxoa eta berde apurra txakurrek kolonizatu digute. «Zer moduz daramazu?», galdegina zidan emakume batek bertatik, txakurra ingurua miatzen ari zela. «Ahal den modu onenean, egun bakoitza erronka bat da», erantzun nion, txikia besoetan nuela. «Bai, ulertzen zaitut, denak berdin gauden», erantzun zidan, aire librean, jarrera zigarroari zupada luzea ematen ziola. Nik, ordea, ezetz esango nuke. •

Normaltasunera itzuli

Koldo Sagasti

Esaera zahar batek dio sutan probatzen dela eltzea nolakoa den, alegia, egoera kritikoek nor bere lekuan uzten dutela. Azken asteotan koronabirusaren izurriteak eragindako salbuespenezko egoeraren testuinguruan ere nork bere txarrena eta onena erakutsi du. Auzokide adeitsutzat geneukana balkoiko zelatari eta salatari bihurtu da; eta ustezko agintari zentzudunek, kudeatzaile eredugarrien itxura saldu dutenek, agerian utzi dute euren gupidagabetasuna, lehenetsi egin baitute gutxi batzuen aberastasuna gehiengoaren ongizatearen aurrean. Ifrentzuan daude larrialdi egoerak bultzatuta

bere onena eman duten milaka herritar solidarioak; besteak beste, han-hemenka itxialdi egoeraren ondorengo behar humanitarioei aurre egiteko elkartasun sareetan antolatu diren pertsona anonimoak. Lehenengoak erakutsi dute norberaren interesa hobesten duen sistema kapitalistak porrot egin duela egoera kritiko batean komunitatearen oinarriko beharrak asetzeko. Aitzitik, bizi-estutasun baten aurrean, senak elkarri laguntzera bultzatu dituen askok agerian utzi dute elkartasuna dela krisialdietatik onik ateratzeko biderik eraginkorrena. Izurriak aurrez aurre jarri ditu kapitela eta bizitza.

Sinistuta nago amesgaizto honetatik esnatzen garenean ezingo garela inoiz lehengo normaltasunera bueltatu. Normaltasunean mandatariek deuseztatzerainoko murrizketak ezarri zizkion orain salbatzen gaituen osasun sistema publikoari. Normaltasunean kezkatuago daude enpresa jardunaren etenaldiak abiadura handiko trenari eragingo dion atzerapenaz herritarren bizitzaz baino. Dena bere onera bueltatutakoan ez gara itzuliko muturrera eramane gaituen normaltasunera. Bestelako gizatasun balioetan oinarritutako normaltasun bat eraikitzeke abiapuntuan gauden. •